



**Ebazpena, 2017ko otsailaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena. Horren bidez, Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendarien izendapena urtebetez luzatzen da, haien agintaldia 2017ko ekainaren 30ean amaitzekoa denean. Salbuespen izango dira lau urteko aldirako berritu beharrekoak, 2012ko maiatzaren 25eko Aginduaren 11. artikulua 1. zenbakian zuzendarien ebaluazio-prozesuaren inguruan xedatutakoari jarraikiz.**

2017ko ekainaren 30ean, amaitu egingo da Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendari askoren agintaldia. Indarrean dagoen araudiaren arabera, 2013ko uztailaren 1ean lau urteko aldirako izendatutakoek aukera izan dute agintaldia bigarren aldi baterako berritzea eskatzeko. Lehenengo agintaldian gauzatutako jarduerari dagokionez balorazio positiboa jasotzen badute, berriz ere dagokien ikastetxeko zuzendari izendatuko dituzte, 2017ko uztailaren 1etik 2021eko ekainaren 30era arteko aldirako.

Otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera – Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko prozesuari eta kide bakarreko gainerako gobernu-organismoak izendatu eta kargugabetzeari buruzkoa–, Hezkuntzako sailburuari dagokio 2017ko ekainaren 30ean hutsik geratuko diren gainerako ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko prozesua deitzea.

Alabaina, Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko Lege Organikoak (abenduaren 9ko 8/2013, LOMCE) aldaketa batzuk sartu ditu Hezkuntzaren Lege Organikoan (maiatzaren 3ko 2/2006) jasotzen den ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatzeko prozesuaren oinarritzko araudian. Aldaketa horiek otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuaren artikulua jakin batzuetan aldaketak egiteko beharra ekarri dute; horretarako, dagokion dekretua izapidetzen ari da Hezkuntza Saila, aurrekoa aldatzeko.

Gauzak horrela, ikastetxe jakin batzuetako zuzendaritza-taldeek agintaldia aurki amaituko den arren, oraindik onartu gabe dago ikastetxe horietako zuzendari berriak hautatzeko prozesuak arautuko dituen dekretu berria.

Egoera horretan, beharrezkoa da Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendari direnen izendapena urtebetez luzatzea, baita gainerako zuzendaritza-kargudunena ere, haien agintaldia 2017ko ekainaren 30ean amaitzeko bada. Salbuespen izango dira Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetakoak eta lau urteko bigarren agintaldi baterako berritu beharrekoak, berritze-eskaera egin eta lehenengo agintaldian gauzatutako jarduerari dagokionez balorazio positiboa jaso dutenean.

Ondorioz,



## EBAZTEN DUT:

## 1. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Ebazpen hau aplikatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publiko guztietan, Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetan izan ezik.

## 2. artikulua.- Agintaldia beste lau urterako berritzea.

1.- Agintaldia 2017ko ekainaren 30ean amaitzen duten zuzendariak, agintaldia lau urteko bigarren agintaldi baterako berritzeko eskaera egin badute eta lehen agintaldian gauzatutako jarduerari dagokionez balorazio positiboa jaso badute, haien ikastetxeko zuzendari izendatuko ditu dagokien Hezkuntzako lurralde-ordezkarriak, 2017ko uztailaren 1etik 2021eko ekainaren 30era bitarteko eperako.

2.- Zuzendari horiek, aurretik ikastetxeko klaustroari eta ordezkaritza-organo gorenari jakinarazita, ikastetxeko kide bakarreko gainerako gobernu-organoak izendatzeko proposamena aurkeztuko diote dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari, 2017ko ekainaren 25a baino lehen. Proposatutakoak ikastetxeko bertako irakasleak izan beharko dira, eta, kide bakarreko organoen izendapen-proposamenean, emakume eta gizonen arteko orekari eutsi beharko zaio, ahal dela.

3.- Hezkuntzako lurralde-ordezkarriak ikastetxeko kide bakarreko gainerako gobernu-organoak betetzeko proposatutako pertsonak izendatuko ditu, 2017ko uztailaren 1etik 2021eko ekainaren 30era bitarteko eperako.

## 3. artikulua.- Agintaldia urtebetez luzatzea.

1.- Arau orokor gisa, ikastetxeetako kide bakarreko gobernu-organo guztien agintaldia 2018ko ekainaren 30era arte luzatuko da, haien agintaldia 2017ko ekainaren 30ean amaitzen bada eta aurreko artikuluan zehaztutako egoeran ez badaude. Hezkuntzako lurralde-ordezkarriak dagozkion izendapenak egingo ditu.

2.- Aurreko zenbakian aipaturiko kide bakarreko gobernu-organoren batek uko egin nahi badio haren agintaldia luzatzeari, bere ukoa idatziz aurkeztu beharko dio Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari, 2017ko maiatzaren 15a baino lehen. Bertan, 2017ko ekainaren 30etik aurrera kargua ezin betetzeko arrazoiak adierazi beharko ditu.

3.- Hezkuntzako lurralde-ordezkarriak, interesdunak adierazitako arrazoiak ikusita, ukoegite hori onetsi ala ez erabakiko du, 2017ko ekainaren 1a baino lehen. Erabakia interesdunari eta dagokion ikastetxeari jakinaraziko zaie.



4. artikulua.- Ikastetxeko zuzendariak bere karguan ez jarraitzea.

1.- Ikastetxe bateko zuzendariak ez badu 2017ko ekainaren 30etik aurrera bere karguan jarraituko, bere zuzendaritza-taldeko kide guztiek 2017ko ekainaren 30ean utziko dute kargua. Ikastetxeko zuzendariak besteak beste honako arrazoi hauetako batengatik ez luke jarraituko karguan: karguari uko egin diolako, kargutik kendu edo errebokatu egin dutelako, eginkizunak gabetu dizkiotelako, erretiroa hartu duelako, beste autonomia-erkidego bateko ikastegi batera aldatu delako, zerbitzu berezietara igaro delako, borondatezko edo nahitaezko eszedentzia hartu duelako.

2.- Kasu horietan, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek, Hezkuntzako Ikuskaritzaren txostena ikusirik, eta, hala badagokio, ikastetxeko irakasleen-klaustroaren eta ordezkari-organoren iritzia entzun ondoren, ikastetxeko zuzendari izateko egokiena iruditzen zaion pertsona izendatuko du, 2017ko ekainaren 15a baino lehen, 2017ko uztailearen 1etik 2018ko ekainaren 30era bitarteko eperako.

3.- Hezkuntzako lurralde-ordezkariek 2017-2018 ikasturtean ikastetxeko zuzendari izango den pertsona izendatu eta gero, pertsona horrek zuzendaritza-taldeko gainerako kideak proposatu beharko ditu, 2017ko ekainaren 25a baino lehen, aurretik ikastetxeko klaustroari eta ordezkari-organoren jakinarazita. Proposatutako pertsonak ikastetxeko bertako irakasleak izan beharko dira, eta, kide bakarreko organo horiek izendatzeko proposamenean, emakume eta gizonen arteko orekari eutsi beharko zaio, ahal dela.

4.- Hezkuntzako lurralde-ordezkariek zuzendaria eta zuzendaritza-taldeko gainerako kideak izendatuko ditu. Izendapen guztiak 2017ko uztailearen 1etik 2018ko ekainaren 30era bitarteko eperako izango dira.

5. artikulua.- Ikastetxeko kide bakarreko beste gobernu-organoren batek ez jarraitzea.

1.- Ikastetxe bateko kide bakarreko gobernu-organoren batek, zuzendariak bestelakoak, ez badu 2017ko ekainaren 30etik aurrera karguan jarraituko, ikastetxeko zuzendariak, aurretik ikastetxeko klaustroari eta ordezkari-organoren jakinarazita, kargurako pertsona baten izena proposatu beharko du, 2017ko ekainaren 25a baino lehen, eta pertsona hori ikastetxeko bertako irakasle bat izan beharko da. Zuzendariak bestelakoak besteak beste honako arrazoi hauetako batengatik ez luke jarraituko karguan: karguari uko egin diolako, kargutik kendu edo errebokatu egin dutelako, eginkizunak gabetu dizkiotelako, erretiroa hartu duelako, beste ikastegi batera aldatu delako, bere borondatez edo behartuta lekualdatu delako, zerbitzu berezietara igaro delako, borondatezko edo nahitaezko eszedentzia hartu duelako, edota zerbitzu-eginkizunetan dagoelako beste ikastetxe batean.

2.- Hezkuntzako lurralde-ordezkariek 2017ko uztailearen 1etik 2018ko ekainaren 30era bitarteko eperako egingo du dagokion izendapena.



## XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Ordainsari-osagarriaren zati bat finkatzea.

Urriaren 16ko 204/2012 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendari-karguaren berariazko ordainsari-osagarriaren zati bat finkatzen duena, 2017ko uztailaren 1etik 2018ko ekainaren 30era bitarteko eperako zuzendaritzan jarduteko izendatutako pertsonen % 2an handituko zaie dagokien aldirako ezarrita dagoen berariazko ordainsari-osagarriaren finkapenaren zenbatekoa. Zenbatekoaren handitzea 2017-2018 ikasturtean egingo den zuzendari hautaketa-deialdian parte hartu eta izendatuak izatearen, eta beren zuzendari-agintaldiaren datozen lau ikasturteen ebaluazioa ona izatearen arabera izango da.

Bigarrena.- Izendapena luzatzean zuzendaritza egonkorra mantentzeko ordu-kredituak jarraitzea.

Ikastetxeek lau urterako hautatutako zuzendariak dauzkaten ikastetxeei dagokien ordu-kreditua izaten jarraituko dute 2017-2018 ikasturtean, baldin eta ikastetxe horietako zuzendariak bigarren agintaldi baterako hautatu edo berri bazituzten 2012-2013 ikasturtean, izendatu zituzten lau urteko aldirian etengabe jardun badira zuzendaritzan, eta agintaldia 2017ko uztailaren 1etik 2018ko ekainaren 30era luzatu badute. Hori guztia, bat etorri uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 24. artikuluko 6. zenbakian ezarritakoarekin; dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 21a



Hezkuntzako sailburuordea  
MIREN MAITE ALONSO ARANA